



Lekua: Batzar Aretoa / Lugar: Salón de Plenos

Bildutakoak: / Asistentes:

Alkatea / La Alcaldesa Maider Lainez Lazcoz

Zinegotziak: / Concejales:

EH-Bildu	Andoni Alvarez Lete
	Estibalitz Mujika Tolaretxipi
	Jon Zulueta Berastegi
	Garazi Usandizaga Zubiria
	Julian López Aracama
PSE-EE	M ^a Teresa Etxeberria Arteun
	Xabier Fondón Pajares
	José Luis Verdasco Gutierrez
	Ascensión Parrón Peguero
EAJ-PNV	Petra Romero Pozo
	Oscar Mendo González
	Maria Jose Izagirre Iturzaeta
Elkarrekin Podemos	Alexander Huitzi Alfonso
	M ^a Sagrario Ruiz Fernández
	Imanol Goenaga Egibar
	M ^a Teresa Santana Rubio

Akta Zenbakia	00000005
Eguna	2021/04/29
Hasiera	19.00
Amaiera	19.40

Idazkaria:

Unai Rekondo Pérez

Kontuhartzailea

Myriam Lizaso
Arruabarrena

Interpretaria

Jon Unanue Lopez

Gai Zerrenda:

1. 2021/01/28 eta 2021/03/25ean egindako batzarren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Xedapenak

2. Hasierako onarpena ematea Andoingo Udaleko lanpostuetako lan-poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideen proposamenari.
3. Udal bide publikoen lurzoru, hegalkin eta lurpearen erabilpen pribatiboa eta probetxamendu bereziaren Tasak; A1 eta A2 ez aplikatzea 2021 urtean.
4. Kreditu aldaketa espedientea 1 zk..
5. Andoainen bidaiarien hiri garraio zerbitzuaren esleipen-prezioa osatzeko proposamena onartzea
6. Elkarrekin Podemosen 2021eko martxoaren 30eko mozioa, alokairuen prezioak arautzeari buruzkoa.

Kontrola

7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Orden del Día:

- 1.- Lectura y aprobación, si procede, de los borradores de las actas de las sesiones celebradas el 28/01/2021 y 25/03/2021.

Parte Dispositiva

- 2.- Aprobación, con carácter inicial, de la propuesta de criterios para la constitución y gestión de bolsas de trabajo de los puestos del ayuntamiento de Andoain.
- 3.- No aplicación en el año 2021 de la tasas A1 y A2 por utilización privativa o aprovechamiento especial del suelo, vuelo y subsuelo de las vías públicas municipales.
- 4.- Expediente modificativo de crédito nº1.
- 5.- Aprobación propuesta de complementar el precio de adjudicación del servicio de transporte urbano de viajeros de Andoain.
- 6.- Moción de Elkarrekin Podemos de fecha 30/03/2021, sobre regulación de los precios de los alquileres.

Parte de Control

- 7.- Ruegos, preguntas y propuestas.



Nahikoa quorum dagoenez eta lehendakaria eta idazkaria ere bertan daudenez, bilkura baliozki eratzten da.

Alkate andreak, hartu du hitza, eta honakoa esan du:

“Arratsalde on, guztioi eta mila esker gurekin izateagatik, ongi etorriak izan zaitezte. Gaur, 2021eko apirilaren 29ko plenoa izango dugu.

“Muy buenas tardes a todos y muchas gracias por acompañarnos a la sesión ordinaria del 29 de abril de 2021 a la que damos comienzo ahora.

“Lehenik eta behin, aipatezea Idazkari berria dugu gaur gurekin, Unai Rekondo jauna. Zorionak, zorte on eta ongi etorria, Andoingo udaletxera.

“Decía que, antes de darle la palabra, dar la bienvenida al D. Unai Rekondo, nuestro nuevo Secretario y, darle la bienvenida y agradecerle que haya elegido Andoain y desearle mucha suerte en este nueva etapa.”

Rekondo jaunak erantzuten du:

“Eskerrik asko.”

1. 2021/01/28 eta 2021/03/25ean egindako batzarren akten zirriborroak irakurri eta onartzea, bidezko bada.

Zinegotziei bidali zaizkien 2021/01/28 eta 2021/03/25ean egindako batzarren akten zirriborroak irakurri ondoren, Alkateak galdetu du ea inork baduen ezer esateko, bestela onartutzat emango direlarik.

Inork ezer adierazi ez duenez, onartutzat eman dira.

2. Hasierako onarpena ematea Andoingo Udaleko lanpostuetako lan-poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideen proposamenari.

Konstituzioko 140. Artikulua udalerriei aitortzen dien autonomiaren oinarriaren gainean, Toki Jardunbideko Oinarri buruzko apirilaren 2-ko 7/1985 Legeko 4.1.a) artikulua udalerriei bere burua antolatzeko ahalmena aitortzen die.

Ikusirik egin behar diren ordezkapenak kudeatzeko garaian lana errazten duten irizpideak onartu behar direla.

Ikusirik, 2021ko martxoaren 11a datan Idazkaritako Administrazio Orokorreko Teknikariak emandako txostena.

Ikusirik, Langilegoa, Antolakuntza eta Barne Araugintza Batzordeak 2021ko apirilaren 13ko bileran emandako aldeko irizpena.

Verdasco jaunak, Langileria, Antolakuntza eta Barne Araugintzako Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on, buenas tardes. El objetivo de este reglamento es recoger los criterios que faciliten y agilicen la gestión de las sustituciones del personal del ayuntamiento de carácter temporal. Se propone la aprobación inicial y se someterá a exposición pública durante 30 días.

“Indicar que en la Junta de Portavoces a instancia del Sr. Secretario se decidió retirar el artículo 14 del documento, en el apartado 7.”

Gaia eztabaidatu ondoren, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1. Onestea, hasierako izaeraz, *Andoingo Udaleko lanpostuen lan poltsak eratzeko eta kudeatzeko irizpideak.*
2. Administrazio-espedita jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari



Ofizialean, Andoaino Udaletxeko iragarki-taulan eta www.andoain.eus Udal web-orrian argitaratuz, **30 eguneko** epeaz, interesadunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3. Espedientea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

3. Udal bide publikoen lurzoru, hegalkin eta lurpearen erabilpen pribatiboa eta probetxamendu bereziaren Tasak; A1 eta A2 ez aplikatzea 2021 urtean.

Alkatezaren proposamena ikusita, non proposatzen baita bide publikoa okupatzeari dagozkion tarifak aldi baterako ez aplikatzea/bertan behera uztea "mahaiekin eta aulkiekin, bai eta upel, mahai altu eta antzekoekin ere"; hori guztia COVID1-19ren egungo osasun-krisiak eraginda.

Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzen dituen uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauaren 9. artikuluan eta COVID-19ko bigarren olatuaren ondorioak arintzeko premiazko neurriek buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu-Arauaren 18. artikuluan ezarritakoaren berri eman du kontuhartzaileak.

Halaber, proposamen horrek 2021eko ekitaldirako aurreikusitako diru-sarrereri eragingo die, aurrekontuan 40.000,00 euro sartu baitira kontzeptu horrengatik.

Ikusirik, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2021/04/20(e)ko bileran aho batez, emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hitza hartu du eta honako azalpena eman du:

“Dakizuenetz, Covid19ren egungo osasun krisiak eraginda, Alkatezatik proposatu zen bide publikoa okupatzeagatik tarifak aldi baterako ez aplikatzea, bertan behera uztea, mahaiekin, aulkiekin, baita kupelekin, mahai altu eta antzekoekin.”

“Decíamos que, motivado por la crisis actual del Covid19, desde la Alcaldía, se propuso no aplicar, suspender transitoriamente, las tarifas por ocupación de vía pública con mesas y sillas, así como, barricas, mesas altas y similares.

“Proposamena Ekonomia eta Ogasun batzordean aztertu zen, 2021eko apirilaren 20an eta, bertan, aho batez eman zen irizpena.

“La propuesta se debatió en la comisión de Hacienda y obtuvo un dictámen favorable por unanimidad.

“Hori guztiagatik, udal batzarrari, honako erabakia proposatzen zaio orain. 8.2. Tasa aldatzea, 2021eko urtarrilaren 1eko urtarrilaren 1eko ondorioekin eta tasa horietan %100a hobaria sartzea Covid19 osasun krisiak eragindakoa, 2021eko urtarrilaren 1etik 2021eko abenduaren 31 arteko ondorioekin.

“Por todo ello, lo que proponemos a este pleno sería, modificar con efectos del 1 de enero de 2021 la tasa 8.2, incluyendo la bonificación en dichas tasas del 100%, motivada por la crisis sanitaria del Covid19, con efectos desde el 1 de enero de 2021 y hasta el 31 de diciembre de 2021.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, jarraian, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Udal bide publikoetako lurzoruaren, hegalkinaren eta lurpekoaren erabilera pribatiboagatik edo aprobetxamendu bereziagatik 8.2 tasa aldatzea, 2021-01-01etik ondorioekin; “A1 eta A2 eranskinak aldatzea; tasa horietan % 100eko hobaria sartzea, COVID-19ren osasun-krisiak eragindakoa, 2021.01.01etik 2021.12.31ra arteko ondorioekin.

2.- Administrazio-espedientea jendaurrean jartzea, dagokion iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuz eta Andoaino Udaletxeko iragarki-taulan eta web-orrian erakutsiz, 30 eguneko epeaz, interesadunek espedientea aztertu eta egoki iritzitako alegazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izateko.

3.- Espedientea jendaurrean dagoen bitartean alegaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudia behin-betiko izaeraz onetsita geratuko da.

4. Kreditu aldaketa espedientea 1 zk.



“Transferentzia bidezko kreditu aldaketaren (Sarekon 2021-KALD-000003-00) 01/2021 zenbakidun espedientea onartzeko proposamena”

Ikusiri. Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 01/2021 zenbakiko espedientearen proposamena egiten du Alkateak, Zerbitzuetako Batzorde irizpenemailearen 2021.04.12ko diktamina kontuan izanda; gastu partiden arteko transferentziaren modalitatekoa.

Ikusirik, Kontuhartzaileak egindako txostenak kontuan izanik. Bertan adierazten dira aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeekin.

Ikuririk, Ekonomia eta Ogasuna Batzorde Informatzaileak 2021/04/20(e)ko bileran emandako aldeko irizpena.

Alkate andreak hitza hartu du eta honakoa esan du:

“Kasu honetan onartzea udal honen aurrekontuaren kredituak aldatzeko 2021eko lehenengo espedientea, kreditu transferentziaren modalitatekoa.

“Someteríamos a votación la aprobación del expediente modificativo de crédito número 1 de 2021 ensu modalidad de transferencia de crédito.

“Kasu honetan izango lirateke 90.121 euro. Kenduko lituzke ur kontadorearen Kmatik eta pasatuko lirateke 60.121 irisbide mekanikoen KMera eta 30.000 euro Andoingo bidaiari garraioari.

“Decíamos que lo que se pretende es hacer una transferencia de crédito de 90.121 euros que se retraerían de la partida de contadores de agua de mantenimiento y se derivarían 60.121 euros a la partida de rampas y escaleras mecánicas y 30.000 euros al transporte urbano Hiribus.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on guztioi eta, ongi etorria Rekondo jauna, zortze onena opa dizugu bai nik eta nire taldeko kideek.

“Puntu honetan, aipatu nahi genuke, kezkatuta gaudela 2021eko aurrekontuarekin. Aurreko Ogasun batzordean aipatu genuen, baino, gauza da apirilean, kasu honetan, adibidez, aurrekusi zitezkeen bi partida urterokoak direlako aurrekontuetan jaso gabe zeuden. Hasiera batean akatsa izan zela eta gerakinetik hartuko zela esan zitzaigun, gero, esan zitzaigun ur kontadoreen partidatik hartuko zela, ur kontadoreen partida hori gainera guk, zuzenketak egin genituenean gure hainbat proiektu hortik finantzatzea proposatu genuen. Gure ustez, iturgina ez zegoenen, partida hori ez zelako behintzat, bere osotasunean erabiliko eta partida hori ezin zela ikutu esan zitzaigun.

“Beraz, gure kezka da ea, horrelako gehiago egongo diren eta gastu korrontea dena eta urteroko gastuak direnak, fijoak direnak, aurrekontuetan jasota dauden. Guk ulertuko genuke urria, azaroa aldera kredituak transferituak behar izatea edo gerakinetik dirua hartu behar izatea baina, ez dugu ulertzen aurrekontuak onartu eta bi hilabetetara jada, horrelako aldaketa proposatzea.

“Esan bezala, kezkatuta gaude, ez dakigulako gastu korronte guztia aurrekontuan sartuta dagoen eta, horrek, egia esan kezka handia eragiten digu.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Arratsalde on eta bueno, denbora pixka batean egon gara, baina, berdina, ongi etorria Rekondo jauna, zure lehenengo plenoa da.

“Ezer gutxi esateko, batzordean aipatu nizuen bezalaxe, akatsa izan da, aurrekontuak osatzerakoan eta aurrekontu proposamena egiterakoan akats bat izan da, begiratzen aritu gara eta ez dugu horrelako beste kasu gehiagorik topatu eta ezer gutxi gehiago. Ez dakit, bueno, badakit, horrekin zuentzat nahikoa ez dela, esatea akatsa izan dela, baina bueno, hala izan da, ez dago beste ezer, orduan, ba hori, batzordean aipatu nuena, akatsa izan da, aitortu nuen, nire akatsa izan da eta ezer gutxi.”

Alvarez jaunak, erantzuten du:

“Garbi utzi nahi dut, akatsak guztiok egiten ditugula, nigandik hasita. Nik adierazi nahi dut, kezka eragiten digula, akatsa izan bada eta gehiago urtean zehar ez badago horrelakorik lasaituko gara, herritarrek ere bai, gure kezka da horrelako gehiago egotea. Akatsak guztiok egiten ditugu eta ni neu, lehenengoa naiz akatsak egiten. Alde horretatik lasai.”

Jarraian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko.

“Desde nuestro grupo vamos a votar favorablemente, porque, bueno, estamos también preocupados al



igual que muestra EH Bildu pero, bueno, ya lo comentamos en comisión, fué porque bueno se dieron una serie de casualidades, en varias comisiones seguidas se hizo una modificación de crédito, no una ampliación, pues si que de golpe todo, pueden entender pues que haya una preocupación de decir, si empezamos ya en abril, como vamos a acabar el año, pero bueno, entendiendo que todos somos humanos, como ya lo he dicho antes, vamos a dar una oportunidad, porque pensamos, que oye, ha pasado y ha pasado, no pasa nada y, además, es para lo que es. Estaremos expectantes, esperamos, a ver, que somos humanos, podemos volver a errar, pero bueno, vamos a dar un margen de confianza. Vamos a votar que sí.”

Parte-hartze gehiagorik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honakoa erabaki du:

1.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko 2021/01 espedientea, kreditu transferentziaren modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapituluko laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	160.000,00	90.121,00	68.879,00
	GUZTIRA	160.000,00	90.121,00	68.879,00

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	115.000,00	90.121,00	205.121,00
	GUZTIRA	115.000,00	90.121,00	205.121,00

2.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzailatza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa”

5. Andoainen bidaiarien hiri garraio zerbitzuaren esleipen-prezioa osatzeko proposamena onartzea.

Ikusirik, Alkatetzak, 2013ko uztailaren 30eko data duen 568/2013 zenbakiko ebazpenaren bidez, Andoainen hiri barruko bidaiarien garraio zerbitzua emateko kontratua Autocares Urpa S.L. enpresari esleitu ziola, horretarako bat etorri 2013ko maiatzaren 7ko dataz onartu ziren Administrazio Baldintza Berezien Agirian eta Jarraipide Teknikoen Agirian xedatutakoarekin, eta aipatu ebazpena Osoko Udalbatzak berretsi egin zuen 2013ko irailaren 26ko datan egin zuen osoko batzarraldian. Kontratuaren benetako prezioa 45.823 eurokoa izan zen horretan, horri gehituz BEZagatiko 4.582 euroko dirukopurua.

Ikusirik 2013ko irailaren 1eko dataz herri zerbitzuak kudeatzeko esleipenari zegokion administrazio kontratua sinatu zela, 10 urteko indarraldirako.

Ikusirik 2020ko abenduaren 21ean Autocares Urpa S.L. baltzuak Udal honen aurrean aurkeztu zuela Andoingo bidaiarien hiri barruko garraio zerbitzua aztertzeari buruz zerbitzualdi horretako zazpigarren



urteari dagokion jarduketa txostena.

Aintzat izanik, zerbitzuaren esleipena arautu zuen Baldintza Teknikoan Agiriko bigarren baldintzak ezartzen duela kontzesiodunak, zerbitzuaren lehenengo urtetik aurrera, eta iragandako urtearen hurrengo urteko lehenengo hilabetean zehar urteko balantzea aurkeztu beharko duela jardueraren emaitza ekonomikoen kontu osoa azalduz, galdu-irabazien kontuak aditzera emanez eta urtealdiaren gaineko oroitidazkia edo txostena aurkeztuz. Diru-galera ematen duen kontzesioa izanik, Udalak, kontzesiodun enpresari urtero diru-laguntza emanez, diru-sarrerak osatu egingo ditu horrela kontzesioaren oreka ekonomikoa lortuz. Diru-laguntzaren zenbatekoa urtero berrikusiko da behin esleipenaren lehenengo urtealdi osoa igaro ondoren, horretarako kalkulua eginez esleipendunaren proposamen ekonomikoa jasotako datuen gainean, hots, ustiapen kostuen gehi industria irabazien batura zatituz txartelaren salneurria bider aurreko urtean izandako bidaiari kopuruaren emaitzaren artean.

Ikusirik Ingurumen teknikariak 2021ko otsailaren 2an, kontzesiodunak aurkezturiko datuak aztertu izanaren ondorioz emandako txostena, eta bertatik ondorioztatzen dela Andoingo hiri barruko bidaiarien garraioak, hiribus ere deiturikoa, zerbitzuaren jarduneko zazpigarren urtean agertzen duen desoreka ekonomikoa diru-sarreraren ataletik datorrela, izan ere hasieran zenbatetsitako bidaiari kopuruan baino erabiltzaile gutxiago izan baita.

Ikusirik, era berean, Hirigintza eta Zerbitzuetako Administrazio Orokorreko teknikariak 2021eko otsailaren 15ean egindako aldeko txostena.

Kontuan izanik, Zerbitzuetako Batzorde Irizpenemaileak 2021ko otsailaren 8an egindako proposamena.

Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak eta Zerbitzuetako Zinegotzi Ahalduak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Aipatu, badakizue, urteko ohiko Hiribus, ohiko zerbitzua defizitariora suertatzen denean, udalak osatzeko konpromezua duela eta, esan 2020. urtean, zerbitzua guztira, 66.010,20 euroko izan dela eta osatu beharreko kantitatea 15.604,20 euro dela.”

Gaia eztabaidara jarri da eta parte-hartzerik izan ez denez, Alkate andreak proposamena bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, aho batez, Alkate andreak eta PSE-EE, EAJ/PNV, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin, honakoa erabaki du:

1.- Andoingo hiribarruko bidaiarien garraio zerbitzuaren esleipen prezioa 15.604,20 eurotan osatzea, kontzesioan gertaturiko desoreka ekonomikoa berdintzearen eta, horrenbestez, ekitaldi berrirako zerbitzuaren esleipen prezioa 60.009,27 eurotan finkatuko da, horri gehituz BEZari dagozkion 6.000,93 euro gehiago. Prezio hori kontzesiodunari ordainduko zaio behin zerbitzuari dagokion xeheturiko faktura aurkeztu ondoren.

2.- Erabakia jakinaraztea Autocares Urpa S.L. enpresari.

3.- Erabaki honen berri ematea Udaleko Kontuhartzaitza lansailari.

6. Elkarrekin Podemosen 2021eko martxoaren 30eko mozioa, alokairuen prezioak arautzeari buruzkoa.

Ikusirik, Elkarrekin Podemos udal taldeak, 2021ko martxoaren 30ean aurkeztutako mozioa.

Ikusirik, EH Bildu udal taldeak, 2021eko apirilaren 27an aurkeztutako mozioa.

Ikusirik, PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek, 2021eko apirilaren 27an aurkeztutako mozioa.

Idazkari jaunak, hartu du hitza eta honakoa adierazi du:

“Beste bi mozio alternatibo aurkeztu dira, EH Bildu udal taldeak, apirilaren 27an eta bestea, PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek aurkeztutako mozio alternatiboa apirilaren 27koa ere.

“Se han presentado otras dos mociones alternativas, la primera de EH Bildu, presentada el 27 de abril y la segunda de los grupos municipales PSE-EE y EAJ/PNV también de fecha 27 de abril.”

Jarraian, Santana andreak, hartu du hitza eta mozioa iraurri du, honakoa diolarik:



“Voy a exponer los motivos que han llevado a Elkarrekin Podemos a presentar esta moción en los ayuntamientos.

“La especulación en el precio de los alquileres es una realidad que sufren actualmente miles de personas y que afecta a amplios sectores de la población en Euskadi.

“Al elevado precio en la compra de la vivienda todavía en ascenso, se suma la escasez de la ofertas de alquiler existentes en el mercado que puedan ofrecer una alternativa real a las personas que no pueden hacer frente a los precios del mercado inmobiliario.

“En paralelo los salarios no han seguido la misma senda y la precariedad es la tónica general para gran parte del mercado laboral, sobre todo para la población joven que está dando los primeros pasos.

“Ante esta situación estructural, la crisis del coronavirus supone un agravante que ha llevado a la pérdida de cientos de puestos de trabajo y al empeoramiento de las condiciones laborales y salariales.

“La vivienda es un derecho reconocido internacionalmente como uno de los derechos humanos básicos y fundamentales y, ante el grave problema de acceso a la misma las instituciones no deberían adoptar una posición pasiva. Según los datos ofrecidos por EUSTAT en junio de 2020 en Euskadi 120532 personas se encontraban con necesidad de acceso de vivienda por situación de emancipación. Estos datos contrastan drásticamente con la oferta de viviendas en alquiler existente en el mercado, según la estadística sobre oferta inmobiliaria de finales de 2020 en Euskadi tan sólo se ofertaron 1.745 viviendas en el mercado de alquiler libre y social.

“En cuanto al precio de acceso se observa que la renta media mensual de estas vivienda es de 1.040,67 euros, según el Observatorio Vasco de la Vivienda siendo el sueldo neto mensual de las personas jóvenes de 18 a 29 años de tan solo 1.164 euros, según el informe del Observatorio Vasco de la Juventud de 2019.

“Los datos sobre el mercado de compra-venta son aún peores. Según el último informe de la oferta inmobiliaria del Gobierno Vasco correspondiente al cuarto trimestre de 2020, refleja de nuevo el ascenso del precio de la vivienda usada en la Comunidad Autónoma del País Vasco, situándose el precio medio pro metro cuadrado útil de la vivienda usada libre a 2.738,8 euros. Con lo que respecta a la vivienda nueva libre el precio por metro cuadrado se sitúa en 3.611,50 euros. Esta cifra se incrementa un 5,4% con respecto al cuarto trimestre de 2019. Además del elevado precio, hay que tener en cuenta la dificultad de una parte de la población para acceder hoy a un crédito hipotecario al no disponer tampoco de condiciones laborales estables.

“Según los datos de la encuesta sobre oferta inmobiliaria desde 2013 los precios de arrendamiento han crecido un 22% en la Comunidad Autónoma Vasca y según, la estadística del mercado de alquiler un 10% desde el año 2016. Este incremento ha llevado a que un 65% de los hogares que viven en arrendamiento tengan que dedicar más del 30% de la renta disponible únicamente al pago del alquiler. Como consecuencia de este panorama los ayuntamientos no pueden dar respuesta a la emergencia diaria de los desahucios o la infravivienda, ni tampoco ofrecer una solución a aquellas personas que necesitan acceder a una vivienda a precios inferiores a los del mercado. O se cede ante los intereses especulativos del mercado o se prioriza el derecho de la ciudadanía vasca a un proyecto de vida digno.

“A pesar de las medidas de urgencia tomadas hasta ahora por el Gobierno del Estado en relación a las rentas de alquiler dirigidas a amortiguar el impacto de la crisis sanitaria sobre los arrendatarios en situación de mayor vulnerabilidad socioeconómica se precisan reformas estructurales en materia de regular de acceso a la vivienda, encaminadas a considerarla como un bien de primera necesidad y no como una inversión.

“Con una nueva ley estatal se podrán áreas con mercado de vivienda tensionado, es decir, áreas donde los precios de los alquileres han experimentado un gran aumento en los últimos años, como ocurre en el ámbito del arrendamiento urbano en las ciudades de Euskadi, lo que abre la puerta a la posibilidad de fijar en ellas un precio máximo para los alquileres, articulando mecanismos que podrán ser complementarios por las administraciones locales en coordinación con el Gobierno Vasco.



“Es necesario comprender que la posibilidad de regulación de los precios de alquiler asegura una rentabilidad económica proporcionada del alquiler a largo plazo para los propietarios. Equilibrando así el derecho de los propietarios y de quienes puedan poner una vivienda en alquiler en relación con el derecho de acceso a una vivienda digna y el cumplimiento de la función social de la propiedad.

“El existente desequilibrio en la negociación de la renta entre la parte arrendadora y la parte arrendataria en escenarios de escasez de oferta y tensión de los precios comporta que el precio se determine de forma unilateral por parte de la parte arrendadora, siendo la mayoría de las veces una carga desproporcionada en relación con los ingresos familiares. Todo ello justifica que sea posible la intervención de los poderes públicos en la regulación de un elemento esencial en la relación contractual, como es el precio. En estos momentos, acabar con los precios abusivos es urgente, especialmente en una situación de crisis sanitaria, social y económica, donde los ingresos de las clases populares se pueden reducir de manera significativa y es necesario adoptar mecanismos que garanticen el cumplimiento efectivo del derecho a una vivienda digna y adecuada en nuestro país.

“En relación a Euskadi, la aprobación de esta ley podrá generar un importante efecto de avance de aplicación y desarrollo de la Ley 3/2015 de 18 de junio de vivienda, reivindicado constantemente por las plataformas sociales defensoras del derecho a la vivienda, siendo Euskadi la tercera comunidad autónoma con los precios de alquiler más elevados.

“Para que sea eficaz en Euskadi, esta medida deberá ir acompañada de otras a partir del desarrollo y aplicación de su propia ley. Como la puesta en valor social de la vivienda vacía y sin uso. Según datos del ejecutivo vasco, existen 30.000 inmuebles desahabitados que pueden ser gestionables, la creación de un gran parque público vasco de vivienda protegida de alquiler, la toma de viviendas protegidas construidas por convenios entre Gobierno Vasco y promotoras no cambien de uso al finalizar el convenio, de tal forma que no puedan ser adquiridas por fondos especulativos y que nadie pueda ser desahuciado sin alternativa habitacional por no poder pagar las rentas.

“Ante la falta de mecanismos atribuidos a las entidades locales por parte de la legislación Reguladora de Bases Locales y en el ejercicio de la necesaria autonomía local, es necesaria una cooperación entre todos los niveles institucionales para poner solución a un problema tan complejo como es el de acceso a la vivienda.

“En consecuencia el grupo municipal Elkarrekin Podemos Andoain propone al Pleno la adopción del siguiente acuerdo:

“1.- Instar al Gobierno de España a aprobar una ley estatal de vivienda que permita su desarrollo en el marco de las competencias de las comunidades autónomas y municipios que blinde la función social de la vivienda y asegure el cumplimiento efectivo y el respeto del derecho a una vivienda digna y adecuada recogido en el artículo 47 de la Constitución española, incluyendo el acceso a los suministros básicos y en virtud de lo anterior, legislar para regular el mercado de alquiler de viviendas impidiendo precios abusivos en los contratos de arrendamiento de vivienda mediante mecanismos de control de precios y promoviendo bajadas de precios tanto en contratos en vigor, como en contratos futuros. Especialmente en las zonas de mayor tensión de mercado.

“2.- Instar al Gobierno Vasco en el marco establecido y en coordinación con el gobierno estatal en el uso de las competencias autonómicas y en base al derecho subjetivo reconocido en el Ley Vasca de Vivienda a desarrollar los mecanismos legislativos y reglamentarios que sean necesarios para avanzar en la regulación del mercado del alquiler de viviendas, impidiendo precios abusivos en los contratos de arrendamiento mediante mecanismos de control de precios y promoviendo bajadas de precios tanto en contratos en vigor, como en contratos futuros.

“3.- Instar al Gobierno Vasco a aumentar el parque público de vivienda en alquiler social y asequible aplicando los mecanismos legales existentes para la cesión de vivienda vacía.

“4.- Instar a la Diputación Foral de Gipuzkoa a poner en marcha medidas fiscales eficaces y eficientes



en defensa del derecho a la vivienda de la población, dirigidas a favorecer la función social de la vivienda deshabitada.

“5.- Instar al equipo de gobierno local a articular mecanismos en coordinación con el Gobierno Vasco para regular el mercado del alquiler de viviendas en el municipio. Impidiendo precios abusivos en los contratos de arrendamiento mediante mecanismos de control de precios. Promoviendo bajadas de precios tanto en contratos en vigor, como en contratos futuros. Incentivando el alquiler la vivienda vacía, el recago estipulado del Impuesto de Bienes Inmuebles o el aumento del parque público de vivienda.”

Jarraian, Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza eta aurkeztutako mozioa irakurri du, honakoa diolarik:

“Honen aurrean osoko zuzenketa aurkezten dugu ondorengo puntu hauekin:

“1.- Andoingo udalak, Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio alokairu merkatu pribatuan zuzenean eragiten duten prezazko neurriak hartu ditzala, besteak beste, alokairuaren prezio mugatzeko tresnak legez arautuz.

“2.- Andoingo udalak Eusko Jaurlaritzari eskatzen dio alokairurako etxebizitza parke publiko handitzeko politikan urrats sendoak emateko konpromiso irmoa har dezala eta, 2/2015 Etxebizitza Legea garatzeko dekretuak onartu ditzala 3 hilabete epean eskubide subjektiboari, zein etxebizitzari hutsen kanonari dagozkionak lehentasunez.

“3.- Andoingo udalak Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzen dio, fiskalitatearen ikuspegitik neurriak har ditzala alokairuaren gehiegizko prezioari mugak jartzeko norabidean. Etxebizitza alokairua ordaintzen duten herritarren kenkariak egokitu eta ponderatzea errenta mailaren arabera eta, alokairutik errenta jasotzen duten pertsonen zergaren tipo altuagoak eta progresiboak ordaintzea, errenta mailaren arabera.”

Jarraian, Verdasco jaunak, PSE-EE udal taldeko eledunak hartu du hitza eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek aurkeztutako mozioa irakurri du, honakoa diolarik:

“1.- El Pleno del Ayuntamiento de Andoain insta al Gobierno Vasco a continuar con el desarrollo normativo de la Ley de Vivienda 3/2015, de 18 de junio, así como con el impulso a las políticas de fomento del alquiler.

“2.- A la Diputación Foral de Gipuzkoa a que en coordinación con las otras dos diputaciones y el Gobierno Vasco en el seno del órgano de coordinación tributaria de Euskadi, estudie y proponga fórmulas para la adopción de medidas en el ámbito de la fiscalidad de la vivienda, a fin de adecuar y ponderar las deducciones de las personas que pagan alquiler de vivienda en función del nivel de renta y someter las rentas obtenidas por el alquiler de vivienda al principio de progresividad.

“3.- Al equipo de gobierno de este municipio a trabajar en coordinación y colaboración con el conjunto de instituciones con competencia en la materia para desarrollar políticas favorezcan el alquiler social de los jóvenes.”

Berriro ere, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Yo voy a solicitar que se pueda votar por puntos la moción que hemos presentado.”

Alkate andreak erantzuten du.

“Ados, ez dago eragozpenik. Parte-hartzerik ez dagoenez, zuzenean bozketara jarriko ditugu aurkeztutako mozioak. Lehenik eta behin jarriko dugu Elkarrekin Podemos udal taldeek aurkeztutako mozioa eta Santana andreak eskatutakoari jarraituz, puntuz puntu egingo dugu.

“Decía que si no hay intervenciones vamos a proceder a la votación de las diferentes mociones y atendiendo a la petición realizada por la portavoz del grupo municipal Elkarrekin Podemos, la Sra Santana, se votará por puntos la moción.”

Lehenengo puntua jarri da bozketara eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE, EAJ/PNV eta EH Bildu udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta Elkarrekin Podemos udal



taldeko zinegotziaren aldeko botoekin, ez da onartu.

Bigarren puntua jarri da bozketara eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren aldeko botoekin, ez da onartu.

Hirugarren puntua jarri da bozketara eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren aldeko botoekin, ez da onartu.

Laugarren puntua jarri da bozketara eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren aldeko botoekin, ez da onartu.

Bosgarren puntua jarri da bozketara eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeko zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotziaren aldeko botoekin, ez da onartu.

Alkate andreak hartu du berriro hitza eta honakoa esan du:

“Alvarez jauna, mantentzen duzue mozioa bozkatzera?”

Alvarez jaunak baietz erantzun du.

Jarraian, Alkate andreak EH Bildu udal taldeak aurkeztutako mozioa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien kontrako botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotzien aldeko botoekin, ez da onartu.

Azkenik, Alkate andreak PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeek aurkeztutako mozioa bozketara jarri du eta Osoko Udalbatzarrak, gehiengoz, Alkate andrearen eta PSE-EE eta EAJ/PNV udal taldeetako zinegotzien aldeko botoekin eta EH Bildu eta Elkarrekin Podemos udal taldeko zinegotzien abstentzioarekin, honako erabakia hartu du:

1.- Eusko Jaurlaritzari eskatzea, ekainaren 18ko 2/2015 Etxebizitza Legearen arau-garapena egiten jarraitzeko, bai eta alokairua sustatzeko politikak bultzatzen jarraitzeko ere.

2.- Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatzea, besta bi Foru Aldundiekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koorinatuta, Euskadiko Zerga Koordinaziorako Organoearen barruan, etxebizitzaren fiskalitatearen arloan neurriak hartzeko formulak aztertu eta proposa ditzan, etxebizitzaren alokairua ordaintzen duten pertsonen kenkariak beren errentaren mailaren arabera egokitu eta haztatzeko, eta etxebizitzaren alokairuagatik lortutako errentak progresibitate printzipioaren mende jartzeko.

3.- Udalerri honetako Gobernu Taldeari eskatzea, gai honetan eskumena duten erakundeekin koordinazioan eta lankidetzan aritzeko, gazteen alokairu soziala bultzatuko duten politikak garatzeko.

7. Galderak, eskaerak eta proposamenak.

Alkateak galde erreguen txanda ireki du eta lehenbizi Alvarez jaunak, EH Bildu udal taldeko eledunak, hartu du hitza, honakoa esateko:

“Herenegun, Andoain udalerriko hainbat puntuetan kamarak jarri zituztela ikusi genuen eta atzo, Alkate andreak, zuk zeuk, eman zenituen azalpenak irakurri genituen prentsan.

“Gai hau, guk dakigula 2019ko azaroko Ogasun batean hasi zen, bertan orduko Udaltzainburua zenak udaltzainen beharrak aipatu zituen, besteak beste, talkiak, datu babeserako ordenagailuak eta kamarak. Udaltzainen beharretarako partida handitzea erabaki zen batzorde hartan, partida hori generikoa zen “Udaltzaingoaren ekipamendua” eta ez zen kamarak erosteko partida zehatz bat. Geroztik, inongo batzordetan ez da kamera hauen inguruan eztabaidatu, ez erabileraz, ez kokapenez eta, ez ezertaz eta 2020ko azaroko Udalbatzan, gai honen inguruan honako hau esan genuen, nik esan nuen, hitzez hitz:

“Gu, puntu honetan herrian kamarak jartzeko azpiegituraren atalean izan ezik gainerako partidekin ados gaude, baina, kamaren azpiegituren kasuan batetik, gure ustez, oso presaka egin da prozedura eta gainera ez dugu ulertzen nola egon daitekeen horrenbesteko aldea aurrekontuetan, bi 40.000 euroren



bueltan daude eta bestea, kontratu zuzena emateko aukera dago, justu muga horretan eta, horrez gain, herrian kamarak ezarri edo ez, gure ustez, guztion artean eztabaidatu beharreko gaia dela iruditzen zaigu eta, egia da, legez, ebazpen bidez, egin badaiteke ere, gure ustez kamera hauen erabilerari buruz eta hainbat gauzei buruz guztion artean hitz egitea hobe litzateke. Horregatik aurkako botoa emango dugu.

“Hori genion, 2020ko azaroan. Gure ustez, herrian kamerak jarri edo ez, guztion artean eztabaidatu beharreko gauza da eta inongo batzordetan eztabaidatu edo ez da landu. Hori eskatu genuen eta ez da egin eta hurrengo urratsa izan da kamera horiek jarrita ikustea. Gure ustez, batetik, gauzak horrela ez dira egiten eta bestetik, kamara horien kokapena, erabilera, pertsonen pribatutasunari buruz eta abar, eztabaidatu egin beharko genuke, zeren gaia oso delikatu delako. Horixe esan nahi genuen.”

Alkate andreak erantzuten du.

“Bueno, como yo creo que más o menos el procedimiento de cómo se han hecho las cosas ya lo ha explicado el Sr. Alvarez. Se llevó efectivamente, la cuestión se llevó a la comisión, se aprobó hacer esa modificación y hacer esa inversión en las cámaras de seguridad junto con otros equipamientos y posteriormente se detectó que faltaban las conexiones para poder colocar esas cámaras y en el 2020 se hizo la modificación de crédito correspondiente para llevarlas a cabo.

“Ahora mismo yo aquí no tengo la documentación correspondiente pero lo que sí queremos confirmar y subrayar es que se trata de unas cámaras de seguridad para, dirigidas a una mejora en el control y seguridad vial, única y exclusivamente, para el control de la seguridad vial y que es una actuación que se nos venía demandando desde que nosotros como equipo de gobierno entramos en el ayuntamiento por parte del jefe de la policía municipal y que en ese sentido se vió que en otros municipios se había implantado este sistema, que estaba funcionando muy bien, que la ubicación de las mismas ha venido determinada por la policía municipal, porque lo que se cubren son las entradas y salidas del municipio y un punto concretamente, que es, la rotonda de Txitibar, porque como todos ustedes sabrán todos los vecinos, constantemente están poniendo quejas, porque a las noches sobre todo, hay determinados vehículos que suelen realizar actuaciones incívicas, trompos y diferentes situaciones de peligro al respecto.

“En ese sentido había bastantes quejas por parte de la ciudadanía y también se ha querido responder a esa demanda y bueno, en principio, no sé si necesitan alguna explicación más, pero creíamos que era importante ponerlas en marcha, todavía no están puestas ni mucho menos, no teníamos la intención de hacer la rueda de prensa tan pronto porque es verdad que estábamos esperando a que se colocaran las señales de identificación de las cámaras, porque lógicamente va a haber señales para que toda la ciudadanía sepa donde están ubicadas, porque el objetivo, insistimos, es la mejora en el tráfico y la seguridad vial, no otra, no hay otra motivación al respecto. Es la seguridad y la mejora vial, porque tenemos algunos problemas detectados y queriendo dar respuesta a los mismos es por lo que se han puesto, pero entendiendo que estaban generando algunas dudas y que estaba habiendo por parte de la ciudadanía preguntas al respecto, optamos por dar la rueda de prensa, ya ayer, hacerlo público y que se conociera aunque ya se había citado en este pleno, porque, como muy bien ha dicho el Sr. Alvarez, ya en el pleno de noviembre de 2020 el tema también se comentó. Muchas gracias.”

Jarrian, Santana andreak, Elkarrekin Podemos udal taldeko eledunak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Me gustaría puntualizar, al margen ya del fondo de las cámaras, si es beneficioso que supongo que lo será para cuando se han puesto, sí que es verdad que, me llegaron como treinta y pico whatsapp de gente y que a veces, quiero decir, se suelen tener comunicaciones de las cosas que se van a hacer y lo que me extrañó que no nos llamaran para comunicarnos, se van a poner unas cámaras porque si que es verdad que genera alarma, porque a mí casi todos los whatsapp que mandan es diciendo, os vais a forrar con las multas con las multas que vais a poner, es con afán recaudatorio y, entiendo que cuando no sabes dices, lo voy a preguntar, pero sí hubiera sido, para mí un detalle y no que la noticias que tenemos de que se han puesto las cámaras es porque nos envían whatsapp y, me extraña porque se nos comunican la mayoría de las cosas, me extrañó, de verdad.”



Alkate andreak erantzuten du:

“Asumimos esa parte sin ningún tipo de problema. Es verdad que, como estábamos diciendo estábamos esperando también a la colocación de las señales, pero bueno, empezó por la colocación de las cámaras y conforme la ciudadanía empezó a verlas pues es verdad que se empezó a mover la situación, como ocurre con otras cuestiones, bueno, conforme la ciudadanía las empieza a ver pues se comentan. Efectivamente, por mi parte no se me ocurrió y asumo ese error sin ningún tipo de inconveniente. Trataré la siguiente, intentó siempre avisar siempre a todos los portavoces de todas las cuestiones que pasan, pero en ese sentido, no me percaté de ello, es verdad que no le dimos más importancia porque todavía no se iban a poner en funcionamiento ni mucho menos. Hay que esperar a esas otras cuestiones para poder ponerlas en funcionamiento. En ese sentido tampoco se pensó en avisar al resto, porque tampoco estaba previsto hacer la rueda de prensa con tanta celeridad, pero bueno, viendo las dudas surgidas, entendimos que lo mejor era dar esas informaciones al respecto.”

Berriro ere, Alvarez jaunak hartu du hitza eta honakoa esan du.

“Guk, berriro diogu, 2020ko azaroko udalbatzan gai hori azaldu zen kreditu aldaketa batengatik, gure ustez, gai hau, proiektu hau, landu, eztabaidatu eta bozkatu egin behar zen, bai kokapena, erabilpena, gure ustez hori da egin behar zena eta ez dena egin. Ez dugu ondo ikusten gai honekin egin den prozedura. Gure ustez gai sensiblea da, delikatu da eta ez da komunikatu, Santana andrak esan duen bezala. Komunikatuta ere, gure ustez gai honek merezi du aztertzea, batzordean, kokapenari buruz hitz egin, zer datu erabiliko diren, nola, zeintzuk eta zeinek, gaia delikatu da eta merezi zuen. Hori da gure iritzia.”

Alkate andreak dio:

“Aprobetxatuz eta baita ere partaidetzaz ari garenez, gelditu ginen zibismoaren ordenantzaren gaiarekin 23rako jaso behar genituela proposamen guztiak eta momentuz bakarrik, Elkarrekin Podemosek egindakoak jaso ditugu, ulertzen dugu EH Bildutik ez daudela, orduan, baita ere, prozedura martxan jarriko dugu, horrekin jarraitzeko.

“Decía que bueno, también se estaba hablando ahora un poco del tema de la participación y como quedamos en que la ordenanza de civismo que ya se había puesto en exposición pública y había algunas dudas al respecto se quedó por todos los partidos que para el día 23 de abril se presentaran las propuestas correspondientes, citar que solo ha habido por parte del grupo Elkarrekin Podemos, entendemos entonces que las de EH Bildu estarán de acuerdo con el texto presentado, en ese sentido, seguiremos con el procedimiento al respecto. Muchas gracias.”

Alvarez jaunak, erantzutzen du.

“Gaia aipatu duzunez, aurrerago hitz egin beharreko gaia zen baino, ez dugu ekarpenik egin, ez gaudelako ados, gaur egun ordenantza hori ez da gure ustez lehentasuna eta bueno, gure artean, hausnarketa bat egiten ari gara eta ez dugu ekarpenik egin ez gaudelako ados, ez delako momentua ordenantza horrentzako.”

Jarraian, Izagirre andreak, EAJ/PNV udal taldeko eledunak hartu du hitza, honakoa esateko.

“Ez, nik bakarrik, komentatu nahi nizuen, zeren, gaur arratsaldeko albistea izan da eta iristen bazaizue jakin dezazuten, ur matxura bat dagoela Krafft inguru horretan, brigada beharrezkoa den makinaria lortzen ari da, errepidea moztu behar da, karril bat moztu behar da, konponketa egiteko, ura gabe geratuko dira, seguruenik, SuperAmara eta inguru horretako baserri guztiak. Kexaren bat iristen bazaizue jakin dezazuen esaten dut eta ahal duten azkarren konpontzen ari direla baino ezin dute bermatu gaur bertan ura emango zaienik.”

Alkate andreak, hartu du hitza eta honakoa esan du:

“Bukatutzak emango gaurko udalbatzarra eta bueno, hilabetero esaten dugunez, asteburu berezia da andoaindarrentzako, batez ere astelehenean Santa Krutz eguna dugulako, kontuan izan behar dugu aurten ezingo ditugula berriro ospatuko Santa Krutzak gustatuko litzaiguk bezala eta alde horretatik eskatzea, andoaindarrei ba, arduraz eta zuhurtziaz jokatzeko, dakizuenez, aste honetan eremu gorrian sartu gara eta alde horretatik guztion artean, neurriak zaintzen baditugu, eremu laranja bueltatzea. Hori posible balitz askoz hobeto.



Andoingo Udala

Akta: Osoko Udalbatza

OHIKO BILKURA: 2021/04/29

Acta: Pleno Municipal

SESIÓN ORDINARIA: 29/04/2021

“Decía que damos por finalizado el pleno de hoy no sin antes decir que este fin de semana hubiera sido un fin de semana especial para todos los y las andoaindarras porque el próximo día 3 es el día de Santa Cruz y nos hubiera gustado poder celebrar las fiestas de Santa Cruz con toda la normalidad posible, pero bueno, la Covid19 no lo va a hacer posible tampoco este año y en ese sentido queremos pedir a toda la ciudadanía que sabiendo que son fechas en las que nos gustaría poderlo celebrar de otra manera, se actúe con responsabilidad y con muchísima prudencia, se trate de evitar todo lo que sean aglomeraciones, todo lo que sea menos de los 2 metros de distancia, por supuesto, llevar en todo momento la mascarilla puesta y, bueno, como todos sabemos el pasado lunes Andoain también entró en zona roja y en ese sentido a ver si conseguimos darle la vuelta a los datos lo antes posible y en ese sentido, lógicamente necesitamos la colaboración de todas y todos. Mila esker.”

Eta beste aztergaririk ezean, lehendakariak amaitutzat eman du ohiko batzarraldia, 19.45 minutu zirenean. Idazkariak batzarraldiari dagokion agiri hau idatzi eta Alkateak irakurri eta ontzat eman ondoren, biek izenpetu dute, bat etorritz Toki Erakundearen Antolamendu, Jardunbide eta Araubideari buruz indarrean dagoen Erregelamenduaren 110.2 artikuluan agindutakoarekin. Eta horren guztiaren fede, nik, Idazkaria naizen honek, ematen dut.

O.E.

Alkatea

Idazkaria

